



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OTXANDIOKO UDALAREN 2004-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Otxandioko Udalaren 2004ko urtealdiaren Kontu Orokorren eta ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du. Berebat, Otxandioko Egoitza Fundazio Publikoa Erakunde Autonomoaren eta Otxandio XXI, SA Sozietatearen -udalaren jabetzako dena eta hirigintza gaietara emana dagoena-legezkontasun eta kontularitzaren fiskalizazioa ere barne hartzen ditu.

Udalaren jarduera aztertzean, legezkontasunaren atalean HKEEk aldeko iritzia eman du legea betetzeari dagokionez, iritzi orokor honen gainean salbuespen batzuk egin dituela.

Honela, bada, ez da ekitaldiaren Kontu Orokorra onetsi eta honek Toki Entitateen aurrekontu jarduera arautzen duen foru arautegia urratzen du. Ez-betetzeen artean, besteak beste, Osokoak ez ditu aurrekontuaren bi aldaketa onetsi, 20.000 eurokoak, eta beste zenbait oker izapidetu dira, 67.000 euroko zenbatekoa egin dutenak.

Administrazio kontratazioari dagokionez, ez da legezkontasuna bete udalaren arkitekto aholkulariaren kontratua 42.000 euroan zabaltzearekin, inongo espedienterik izapidetu gabe. Bestalde, 855.000 euroan esleitutako obra kontratu batean, ez da kontratu hori gauzatzeko enpresariaren nahitaezko sailkapena eskatu; halaber, ez dago erasota zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan eguneratua dagoenik.

Udal kontuei dagokienez, fiskalizazio txostenak ondorioztatu du egoki erakusten dutela udal jarduera, nahiz aurkeztutako datuei hainbat zuzenketa egin zaizkien, gastu orokorretarako diruzaintza gaindikina 584.000 euro inguruan kokatzen dutenak. Halaber, fiskalizazio txostenean gaurkotutako ondasun eta eskubideen zerrenda gaurkoturik ez dagoela azpimarratu da; baita, Hiri Izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga ez dela likidatu 2003 eta 2004ko ekitaldietan egindako 33 eskualdaketetan.

Otxandio XXI, SA Sozietateari dagokionez, Erakunde fiskalizatzaileak ondorioztatu du egoki bete duela ezargarria zaion legedia. Kontuei buruzko iritzia atalean, txostenak



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

dio sozietateak metatutako galeren ondorioz kapital soziala murriztu behar zukeela, kontzeptu horri Udaletik jasotako mailegua ezarri beharrean, 2006ko ekitaldian kitatu dena.

Zaharren egoitzari dagokionez, fiskalizazio txostenak ondorioztatu du ez duela ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia bete. Iritzi honetara iritsi da, izan ere, bertako langileei finkotasuna eman baitzaie enplegu publikoaren sarbiderako eskagarriak diren berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde gabe eta publizitate eta lehia beharrezkoa zuten bi administrazio kontratu bakarrak zuzenean esleitu direlako, inongo espedienterik bideratu gabe. Azken kontratu hauen zenbatekoak 109.000 euro egin zituen.